

Bertsolaritza Igantziko eskolan

HELBURU NAGUSIA

Euskara izanik gure ingurune naturalean aho hizkuntzarik hedatuena, berau indar dezaketen hezkuntza materialak sortzea.

EKINTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Bertsolaritza denez aho hizkuntzaren atal nagusienetariko bat, ezinbestekoa da lantzea.

HELBURUAK

1. Ahozkotasuna landuz, bertsoan ikasteko metodo edo proposamena, eta aldi berean, bertso gintza landuz, ahozko alderdi komunikatiboan trebatzea.
2. Eskolan gehienbat idatzizko lana egiten denez, ahozko egoera komunikatibo ez formalean edo lagunartekoan lan egitea.
3. Euskararekin jolastea, gimnasia mentala eginez ikasleak gaitasun komunikatibo eta afektiboak landu ditzan, baita hizkuntzaren hainbat atal ere: lexikoa, sintaxia, metrika, erritmoa, errima, musikaltasuna, argudioa, bat-batekotasuna...



EDUKIA ETA ESKOLAKO PLANGINTZA

Kontzeptuzko edukiak

- Kopla txikia, kopla bereziak, kopla handiak, zortziko txikia eta handia; hamarreko txikia eta handia eta egitura bereziko bertsoen doinuak ikasi eta guzieren egitura ezagutu.
- Errimaren ezaugarriak.
- Metrikaren alderdiak
- Gaur egungo bertsolaritza
- Bertso zaharrak
- Esamoldeak, atsotitzak...

Prozedurazko edukiak

- Bertso saioak entzun, bertsolariak erabilitako kantaera, erritmo eta doinua behatuz, eta hari imitatuz bertsoak kantatu.
- Bertso saioak entzun ondoren, zenbait buruz ikasi, memoria lantzeko.
- Berezi doinuak eta lehengo bertsokera eta esamoldeak ezagutu eta lantzeko, bertso zaharrak kantatu, eta batzuk buruz ikasi.
- Koplak, zortzikoak, hamarrekoak eta bertso bereziak idatzi eta kantatu, hori egiteko beharrezko diren idatzizko eta ahozko ariketak eginez.
- Koplak, zortzikoak, hamarrekoak eta bertso bereziak behatu, alderatu, osatu eta eraldatu.
- Ahoz nahiz idatziz eginiko ariketa eta bertso guziak kantatu.
- Elkarrizketan aritu hizketarako trebezia, grazia, bizitasuna eta egokiera bereziki kontuan hartuz.

Jarrerazko edukiak

- Bertsolaritza eta bertsogintza jarraitzeko joera piztea.
- Kanturako zaletasuna piztu eta indartzea.
- Ahozko jardunak duen garrantzia baloratzea.
- Ahozko egoera komunikatiboetan erosotasuna eta parte hartzeko gogoia erakustea.
- Komunikazio egoera bakoitzari dagokion egokitasunez hitz egitea baloratzea.



EKINTZAREN DESKRIPZIOA

Sekuentziazioa	Kurtsoan zehar, astean behin, 2. eta 3. zikloko ei saio bat eskaini zaie bertsolaritzaren inguruan. Ahozko emanaldi bereziak ikasturtean zehar.
Irakaslearen esku hartzea	Bi zikloetako tutoreak arduratzen dira saioez eta bat-bateko emanaldiak antolatzen dituzte.
Ikasleen lana	Aitzinean finkatutako jarduera bat denez, ikasle guztiek parte hartzen dute.
Ekintzak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Igantziko Eskolako 3. zikloko ikasleek eskola osoari eskaintako saioa. 2. Bertsolari trebatuek eskolari eskaintzen diotena. 3. Herriak ospatzen duen Kultur asteko bertso saio emanaldia
Baliabideak	<p><i>Giza baliabideak:</i></p> <p>Bertsolari Elkarteak tutoreei eskaintzen dien aholkularitza.</p> <p><i>Baliabide materialak:</i></p> <p>Bertsolaritzari lotutako liburuak, CDak, programa informatikoak...</p>

EKINTZAREN BALORAZIOA

Aspalditxoko kontua denez eta urteroko balorapena baikorra denez, honetan jarraitzen dugu, hala ere, urtetik urtera ekintzak handitzen eta hedatzen ari direla.

JARDUERA ESKOLAZ KANPO ZABALDU

Herriko Kultur astean finkatu da jarduera.

